

LURRALDE-POLITIKA ETA KONTRATAZIOA **Planeamendua, Kudeaketa eta Ingurumena**

BASAURIKO UDALA

J Area-Azbarreneko 1 exekuzio-unitateari eragiten dion birpartzelazio-proiektua aldatzea (akatsak zuzentzea). 2020ko martxoaren 9ko 767 Dekretuak onetsi zuen proiektu hori.

2020/09/22an, 2376/2020 Dekretua eman zen. Zera dio Dekretu horrek:

«Basauriko Udalak eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten 2020ko otsailaren 5ean, Basaurin, J Area-Azbarrenen, babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak sustatu ahal izateko.

Hitzarmen horrek ezartzen du J Area-Azbarrenen exekuzio-unitate bi daudela, bata bestearen atzetik datozenak: 1 exekuzio-unitatea, zeina ituntze-sistema bidez kudeatuko baita; eta 2 exekuzio-unitatea, non nahitaezko desjabetzea aplikatuko baita. Hala egiteko xedatzen du apirilaren 5eko 1545/2019 Dekretuak behin betiko onetsitako hirigintzako jarduketa-programak.

Ondore horietarako, eta J Area-Azbarreneko 1 exekuzio-unitateari dagokionez, hasierako onespina eman zitzaion gune horretarako birpartzelazio-proiektuari, 2020ko martxoaren 9ko 2020/767 Dekretu bitartez. Eta, gero, birpartzelazio-proiektu hori jendaurrean jarri zen.

Ordutik igarotako aldian, baina, akatsak antzeman dira «J Area-Azbarren, Basauri. Birpartzelazio-proiektua. 34.1 exekuzio-unitatea» dokumentuan, eta horiek zuzendu beharra dago. Zehazkiago, honako hauek:

3. atala (xedea):

2. or.: 34.1 exekuzio-unitateak 18.157 m²-ko azalera du. Ordea, bertako bigarren gune etenaren azalera, akats bat dago dezimaletan. Lehenengo gune etenak 13.907,81 m² ditu; baina bigarrenak ez ditu 4.249,29 m², 4.249,19 m² baizik.

5. atala (aplikatu beharreko araudia):

4. or.: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmen bat aipatzen da, zeinaren xedea den adierazitako eremuan babestutako alokairuzko etxebizitza-politika sustatzea ahalbidetzea. Esaten da hitzarmen hori sinatzeko zain dagoela, baina dagoeneko sinatuta dago: 2020.02.05ean sinatu zuten alderdi biek. Agiria, baina, lehenago idatzi zen, eta eguneratu egin behar da: adierazitakoa jaso behar da, oso garrantzitsua da eta.

Ituntze-batzarra eratu ahal izateko estatutuak ere eguneratu behar dira. Izapidetze-prozesuan daude, eta hasierako onespina jaso zuten 2020ko martxoaren 9an.

Beraz, honela dioen tokian:

"Basauriko Udalak (jabe nagusiak) eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak lankidetzaz hitzarmen bat negoziatu, idatzi eta behin betiko onetsi dute, eta, orain, hitzarmen hori sinatu behar dute. Bertan, administrazio publiko bakoitzaren konpromiso, ekarpen eta obligazioak ezartzen dira, hirigintza-jarduketa hau aurrera eraman ahal izateko, eta, bereziki, alokairuzko etxebizitza babestua sustatu ahal izateko.

Era berean, Basauriko Udala eta Harri Iparra SA (guztira, eremuko luraren % 99,89aren jabe dira) dagozkion estatutuak idatzi eta adosten ari dira, Lege honetan aurreikusitako ituntze-batzarra eratu ahal izateko. Horrek, dena dela, ez du eragotziko dagokionean, beste jabeari, ETSri (Eusko Trenbide Sarea), batzarkide izateko eskaintza egitea, edo, bestela, indemnizazioa ematea, adjudikazio-akatsagatik".

Zera jarri behar du:

"Basauriko Udalak (jabe nagusiak) eta garai bateko Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten 2020ko otsailaren 5ean. Bertan, administrazio publiko bakoitzaren konpromiso, ekarpen eta obligazioak ezartzen dira, hirigintza-jarduketa hau aurrera eraman ahal izateko, eta, bereziki, alokairuzko etxebizitza babestua sustatu ahal izateko. Azpimarratu beharra dago exekuzioak zenbait ondare-eragiketa egitea eskatzen duela, eta eragiketa horiek nabarmen aldatzen dituztela hemen deskribatutako adjudikazioak.

Era berean, Basauriko Udala eta Harri Iparra SA (guztira, eremuko luraren % 99,89aren jabe dira) dagozkion estatutuak idatzi eta adostu dituzte, Lege honetan aurreikusitako ituntze-batzarra eratu ahal izateko. Udalak hasierako onespina eman zien estatutu horiei 2020ko martxoaren 9an. Horrek, dena dela, ez du eragotziko dagokionean, beste jabeari, ETSri (Eusko Trenbide Sarea), batzarkide izateko eskaintza egitea, edo, bestela, indemnizazioa ematea, adjudikazio-akatsagatik".

5. or.: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 41. artikulua aipatzen da, baina, berez, 42. aipatu beharko litzateke.

19. atala (sortutako partzelak eta adjudikazioak)

46. or.: NJ 3 partzelari buruz, honako datu akastun hauek jasotzen dira:

Titulartasuna: Basauriko Udalak, % 14,76 (ekarpen gisa, 10. finkaren lurzoruen zati bat eman baitzuen: % 67,583). Era berean, Basauriko Udalak, % 85,2474 (ekarpen gisa, 11. finkaren % 32,416 eman baitzuen).

Baina, berez, hauxe da zuzena:

Titulartasuna: Basauriko Udalak, % 14,7646 (ekarpen gisa, 10. finikaren lurzoruen zati bat eman baitzuen: % 67,583). Era berean, Basauriko Udalak, % 85,2474 (ekarpen gisa, 11. finikaren % 100,000 eman baitzuen).

Nabarmendu behar da aipatutako aldaketek ez dietela eragiten «J Area-Azbarren, Basauri. Birpartzelazio-proiektua. 34.1 exekuzio-unitatea» dokumentuan jasotako planoei.

Ondorioz, adierazitako guztia ikusita, eta ez denez eragozpen juridikorik ikusten, Hirigintzako atalburuak zera proposatzen du:

EBAZPEN-PROPOSAMENA

LEHENENGOA: J Area-Azbarreneko 1 exekuzio-unitateari eragiten dion birpartzelazio-proiektua aldatzea. Proiektu horrek hasierako onespena jaso zuen 2020ko martxoaren 9ko 2020/767 Alkatetza Dekretu bidez, dokumentu honen esposizio-atalean adierazitako baldintzetan.

BIGARRENA: Proiektua jendaurrean jartzea hilabetez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udal iragarki-taulan eta egunkari batean iragarkia jarrita. Eta, era berean, dokumentazioa interesdunen esku jartzea Udalaren egoitza elektronikoan ([<https://www.basauri.eus>]).

Jendaurreko aldiari zehar, espedientea hura aztertu nahi dutenen esku egongo da, egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten.

HIRUGARRENA: Interesdunei **entzunaldia ematea** adierazitako epean zehar, bakarkako zitazioarekin, egoki deritzen alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten».

Egintza honek administrazio bidea agortzen du. Bere aurka, **ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA** jarri ahal da Bilbon, **administrazioarekiko auzien dagokion epaitegian**, iragarki hau argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera.

Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, **BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA** jarri ahal da orain jakinarazten den administrazio-egintza hau eman zuen organoan, erabaki hau argitaratzen den dataren biharamunetik **HILABETEKO** epean. Berraztertze-errekurtso hori administrazio-isiltasunez ezetsia izan dela joko da, baldin eta berau jarri eta hilabete igaro ostean ez bada horren gaineko ebazpenik jakinarazi. Kasua hori bada, lehenengo paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da sei hilabeteko epean, administrazio-isiltasun bidezko ezespina eman zen dataren biharamunetik zenbatzen hasita.

Errekurtsoen araubideari dagozkion oinarri juridikoak honako hauean daude: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 2ko 39/2015 Legearen 114, 123 eta 124. artikuluekin bat); eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 52.1 artikuluan (apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazketan).

Hori guztia halaxe izango da, betiere, interesdunak bere eskubideak hobekien defendatzeko jarri nahi duen edozein errekurtsoren, edo egikaritu nahi duen edozein akzioen kalterik gabe.

ALKATEA,
(Digitalki sinatua)